

## TXIMURKA

# Musika nota eraldatzaileak Gasteiztik

Musika ikasketak ordaindu ezin dituztenei musika irakatsi, bidean bestelako mundu eta harremanak eraikiz. Bulkada horretatik hasi ziren elkartzen Gasteizko Jesús Guridi Musika Kontserbatorioko zenbait musika irakasle urte bete baino gehiago dela. Orduko ametsak ameskeria bihurtzekotan egon ziren COVID-19aren ondorioz, baina musikan gorpuztu dira azkenik. Kefren De Agaphilek eta Joana Otxoa de Alaiza Graziak azaldu digute zer den eta zertan den Tximurka proiektua.

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA  DOS POR DOS

**M**igratzaileek gurean bizi dituzten bidegabekeriak eta sufrimenduen aurrean zerbait egin nahi zutelaz azaldu digu Joana Otxoa de Alaiza piano irakasleak, musikatik eta ikuspegi kritiko batekin: “Geroz eta zailagoa da instrumentu bat ikastea dirurik gabe, musika geroz eta elitistagoa da. Nahi duen ororen eskura jarri nahi dugu, baztertuta daudenei tokia eskainiz, baita beren burua garatzeko aukera ere”. Proiektuaren hartzaileak migratzaile pobretuak izatea zuten buruan hasieran, baina bidean fokua zabaldu dute: “Oro har musikaren ikasketarekin kontaktua izateko beste aukerarik ez duen edonorentzat da Tximurka. Ikasketa ordaindu ezin duenarentzat”.

Hierarkiak eta norabide bakarrek praktikak ekidin nahi dituzte. “Musika eskola bat non ‘irakasleak’ ez duen garrantzi handiagoa: irakasten dago momentu batean, eta beste pertsona bat jasotzen, baina beste une batean alderantziz izango da. Ez duzu zertan irakasle izan proiektuan parte hartzeko, ezta musika irakasteko ere. Musikaren profesionalak ez diren irakasleak batu zaizkigu jada”.

## ESKUZABALTASUNA OINARRI

Eskuzabaltasunak egin du posible orduko ametsak haragitzen joatea. Gasteizko Mugarik Gabeko Musikariak (MGM) elkartearekin jarri ziren harremanetan

lehenik. “Ate guztiak zabaldu eta musika tresna piloa laga dizkigute”, azaldu digu Otxoa de Alaizak, gordeta dituzten dozenatik gora gitarrak seinalatuz. Aretoko bi piano ederretako bat eta akordeoi bat ere herritar batek oparitutakoak dira. Hasierako harreman emankorrak Tximurka MGMren parte izatea ekarri du naturalki, baina proiektua autonomia izaten jarraitzen du.

Espazio baten beharra eta horrelakorik ordaindu ezina kezka iturri izan ziren hasieratik. Ezustean hots egin zien proiektuaren berri izan zuen emakume batek, hutsik zuen lokala musu-truk erabiltzea eskainiz. Panama kaleko egoitza ondo dago egitura aldetik, baina ia hutsik, eta hobekuntzak egin nahi dituzte. “Toki goxoa izatea nahi dugu, musikariak edota musikan interesa dutenak erakarriko dituen”. Nola egin aurre gastuei? Jaso duten beste donazio anonimo batekin, 2.000 eurokoa: “Laguntza handia izan da. Obra aurrekontua egin digute, eta laster hasiko gara”.

Baina ez dute egokitze lanak amaitu arte itxaron ibiltzen hasteko, eta azaroan entzun ziren lehenbiziko musika akordeak Tximurkan. Zenbait elkarterekin elkarlanean irakasleak eta ikasleak harremanetan jartzen dituzte, “momentuz gutxi batzuekin, ea ondo doan ikusteko”: Gasteizko CEAREkin (Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea); Alde Zaharreko

Goian proiektu hezitzailearekin; eta OEE Arabarekin. “Adibidez, hiru piano irakasle gaude. Osatzen dugu ordutegiak eta egunen taula bat eta jartzen gara haiekin kontaktuan, ikusteko eskaintzen dugun hori jasotzeko interesa duen inork”, azaldu du Otxoa de Alaizak. “Bakoitzak nahi duena ematen du. Irakasle batzuek ordu erdi astean, beste batzuek osoa, edo bi...”. Alderantzizko noranzkoan, elkarrekin musika ikasteko gogoak duen pertsonaren bat dutenean Tximurkarekin jartzen dira harremanetan, “eta gu irakasle bat aurkitzen saiatzen gara”.

## IKASLEA IRAKASLE?

Kefren De Agaphil da musika klaseak jasotzen ari den gasteiztarretako bat. Gitarra irakasten dio Nikok, eta poz-pez dago Tximurkako proiektuarekin: “Horrelako zerbaiten bila nongoen. Kantatu egiten dut, baina instrumenturik jo ez, eta ikasi nahi dut”. OEE Arabako kide Agus-ek deitu zion, “Esan zidan, ‘Aizu Kefren, eskolak ordaintzeko edo eskola ofizial batean izena emateko aukerarik ez duten pertsonentzat proiektu bat dugu, telefonoa emango dizut’. Joanarena zen. Hitz egiteko geratu ginen, lokala ikusi, eta Nikoz hitz egin zidan”.

Musika talde bat osatu eta han-hemenka aritzea da De Agaphilen ametsa. Bost urte dira Gasteizera heldu zela, bere egoera ekonomiko eta administratiboa ez da



samurra. Talde batean kantari lanetan aritu zen aspaldi, ondoren taberna batean kontzertuetan noizbehinka parte hartzeko aukera izan zuen, eta justu osasun krisia hasi aurretik talde berria osatu nahian zebilen. “Baina koronabirusa heldu zen, eta agur”. Egoera leheneratzeko irrikaz dago, ametsari berriz ere heltzeko.

Tximurkaz lehenengo pertsonaren pluralean hitz egiten du bolikostarrak –“Proiektua aurrera ateratzeko ahalegina egingo dugu”–, eta zer edo zer “emateko” irrika du: “Klaseak jasotzen ditut, baina beste gauzaren batean ekarpena egitea badut egingo dut”. Otxoa de Alai-

zak agian irakasle lanetan hasiko dela esan digula aipatzen diogunean, irribarre lotsatia zuzentzen digu: “Beno, bai, agian kantuan irakatsi, dakidana...”.

### COVID-19AREN ZAILTASUNEN GAINETIK

Tximurka ibiltzen hasi berria da, eta formatu txikian ari dira momentuz. Bost lagun ari dira klaseak ematen eta beste horrenbeste jasotzen. Irakasle lanetan dabilzan guztiak Euskal Herrian jaioak dira, eta instrumentua ikasten dutenen jaioterriak Georgia, Boli Kosta, Venezuelak eta Algeria dira. Neurri batean haiek

erabaki dute klase gehiago ez ematea, pixkana hazi nahi dutelako. Baina bizi dugun krisirik gabe Panama kaleko lokalak bizitza handiagoa luke. Txeloa, tronpeta, tronboia, pianoa eta gitarra irakasteko prest dauden lagunak ditu Tximurkak, baita abesbatza irakasle bat ere. Baina osasun irizpideengatik erabaki dute momentuz aldi berean klase bakarra ematea lokalean, edo maskara kentzea eskatzen duten haizezko instrumentuekin ez hastea, besteak beste. Bestalde, asanblada eta eztabaiden erritmoa mantsotzen dute elkartzeko debekuek edo ordutegi murrizketek, proiektua baldintzatuz.

Penarik ez, ordea. Ibiltzen hasteaz gain, beste proiektu asko dituzte ganbaran. Agertoki txiki bat egin nahi dute kontzertu txikiak egiteko, eta asteburuan lokala ireki. Ehunka partitura dituzte jada bilduta lokalean, eta horiekin funts autogestionatua egin nahi dute, jendea-ri maileguan hartzeko aukera emateko: “Puntazoa izango dela uste dugu, oso toki gutxi baitago partiturak hartzeko aukera ematen duenik. Alemanian adibidez, liburategietan partituren atala izaten dute, hemen ez: musika eskola baten partaide izan behar duzu eskuratu ahal izateko”, dio Otxoa de Alaizak. Tximurkan hasitako bidea musika eskola batean jarraitu nahi dutenei azterketa prestatzen laguntzeko eta sarbidea ordaintzeko gaitasuna izan nahiko lukete noizbait. “Horretarako sarrrera ekonomiko propioak beharko genituzke, ez dugu diru-laguntza publikorik nahi”. Eta ez dute baztertzen proiektua diziplina eta ekimen berrietara irekitzeko aukera, dantza edo pinturara kasu.

### LAGUNDU ETA BATZEKO HAMAIIKA AUKERA

Otxoa de Alaizak eta De Agaphilek gasteiztarrei dei egin diete Tximurkara batzera edo proiektua beste nolabait babestera: klaseak eemanez edo jasoz, asanbladara batuz, instrumentuak, dirua, mahaiak eta aulkiak edo arbela emanez. Harremanetarako tximurka@gmail.com helbidea ireki dute.

Ilusioa eta poza transmititzen dituzte bi hizlariak, musika tresnez eta partiturez betetako gelan. “Dugun ibilbide laburrean, oso harrera beroa sentitu dugu, esker on asko, interes handia... Hasierak Tximurka beharrezkoa dela berretsi digu”, dio Otxoa de Alaizak, eta De Agaphilek bo-robildu du elkarrizketa: “Ikasle eta irakasle artean harreman estuak sortzen dira. Niretzat orain proiektua oparia da”. ●